

ataria

2022-05-13 • 1.600. zenbakia
107.6 fm • Ataria.eus

Xabier Zeberio, musikaren harian





AURKIBIDEA

Iritzia Maite Asensio **3**

Elkarrizketa Naroa Ayestaran,
Tolosako hilerrian lurperatzailea **4-7**

Kontzientziaren Ibaia A. Tena **8-9**

Asteko Gaia Xabier Zeberio
Etxetxipia, musikari loturik **10-17**

Iritzia Ion Mintegiaga 'Minde' **18**

Iritzia Onintza Lasa **19**

Psikopedagogia Idoia Apaolaza **20**

Plazanbazan Denbora-pasa **24-25**

Agenda Keia, musikari
beteranoen talde hasiberria **26-29**



Azaleko irudia
Jon Miranda Labaien

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana eskaratu

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





MAITE ASENSIO
HEZITZAILEA

Bidelagun

Aurreko batean sareetan hurrei gurasoen zaletasunak bideratzearen inguruko eztabaida bat ikusi nuen. Oso gai interesgarria iruditu zitzaidan, zaletasunaren inguruan eta bizitzako beste hainbat esparruetan ere, hainbatetan saiatzen baikara helduok haur eta gazteak bideratzen.

Izan zaletasunak, izan guk bizitzan lortu ez ditugun helburuak, askotan saiatzen gara haurrengan gure interesek mugitzen dituzten hainbat esparru bultzatzen. Zaletasunaren kasuan, niri naturala iruditzen zait gure zaletasunak seme-alabekin konpartitzea. Bertsozale batentzat berezia izango da bertso saio batera bere seme-alabekin joatea, niretzat gustuko kontzertu batera nire semeekin joatea berezia den bezala. Oso desberdina da berriz, gure hutsune batzuk haurren bitartez betetzen saiatzen garenean, zenbatetan entzun ote ditut ondorengo esaldiaren antzekoak: «Nik ez dut inoiz ingelesa ondo ikasi eta ikasi dezala haurrak, ondo etorriko zaio etorkizunean».

Gure zaletasunak gure seme-alabei transmititzen dizkiegunean, ezin dugu espero beraiek hauek bere egitea, eta hor ere hanka sartzen dugu. Izan ere, zue-tako zenbatek entzuten duzue zuen gurasoek entzuten duten musika bera? Edo zue-tako zenbati gustatzen zaizue kirol bera? Kasu batzuetan bat egingo duzue eta besteetan berriz ez. Izan ere, nik nire semeei transmisio bera egin diedan arren, ezin dituzte beraien artean zaletasun desberdinagoak izan. Eta azken finean horretan datza heziketak, gu bidelagunak gara, baina beraiek dira bidea egin behar dutenak, zaletasun, interes eta nortasun propioarekin. Beraiek erabaki behar dute zer duten gustuko eta zer ez.

Ireki dudak bideari jarraituz, euskararekin ere, bideratzen saiatu izan gara askotan transmisioa alde batetara utziz. Gaur egungo haur eta gazte asko eta askok, ez dute euskara beraien identitatearekin identifikatzen, eta hori egin dugun transmisioaren ondorio da. Zenbat aldiz entzun ote ditut, guraso euskaldunak parkean lagunartean gaztelaraz hitz egiten eta hurrei euskaraz hitz egiteko eskatzen. Zenbat aldiz entzun ote dut irakasle bat hurrei «euskaraz hitz egin» esaten. Zer egin behar duten baino, euskarak

«Eta azken finean horretan datza heziketak, gu bidelagunak gara, baina beraiek dira bidea egin behar dutenak, zaletasun, interes eta nortasun propioarekin»

guretzat zer esan nahi duen erakutsi behar diegu. Euskara bere sentitu behar dute eta euskara erabiltzeko hautua beraiek egin behar dute, zaletasunekin egin behar duten bide bera egin behar dute hizkuntzarekin.

Ni ere saiatu naiz lerro hauen eta aurrekoen bitartez nire bizipen eta usteak transmititzen, eta ez bideratzen. Hemendik aurrerakoak beste batzuen esku utziko ditut. Hona nire azken aholkua: «Zaindu maite duzun hori».



**«GIZONEZKOENA IZAN DEN
ESPARRU BATEAN GU ERE
LAN EGITEKO GAI GARELA
ERAKUTSI NAHI DUT»**

NAROA AYESTARAN IBARBURU
LURPERATZAILEA

Duela zortzi hilabetetik Tolosako hilerriko lurperatzailea da Naroa Ayestaran tolosarra; aske lan egin nahi zuen, eta Tolosako hilerrian topatu zuen lasaitasuna, eta «oso gustura» ari da lan berrian.

Eneritz Maiz Etxarri Tolosa

Bulegoko lanarekin nazkatuta, kasualitatez iritsi da herriko hilerriko lurperatzaile izatera Naroa Ayestaran Ibarburu (Tolosa, 1992). «Oso gustura» ari dela lan berrian aitortu du, eta orain artean gizonezkoena izan den lanean emakumeek ere egin dezaketela erakutsi eta gizarteratu nahi du.

Nola iristen da bat lurperatzaile izatera?

Lan bila nenbilen. Administrazioa ikasi nuen, eta lanean lau pareta artean oso itxita sentitzen nintzen. Aldatu egin nahi nuen lanez. Aplikazio ezberdinetan ari nintzen lan bila eta lurperatzailearen aukera atera zitzaidan. Arraroa edo ezohiko lana da, eta hasieran ez nintzela apuntatuko pentsatu nuen. Baina gero neure buruari esan nion: «Zergatik ez?». Probatzera ausartu nintzen, eta curriculuma bidali nuen.

Kasualitatez iritsi zarela esan daiteke?

Eskaintza ikusi nuelako izan da.

Noiztik ari zara?

Jada zortzi hilabete daramatzat. Irailean hasi nintzen.

Tolosako hilerriko lurperatzailea zara.

Hori da. Tolosako Udalak enpresa pribatu bat kontratatzen du, eta nik enpresa horretan egiten dut lan. Tolosako hilerriaz gain, Aldaban eta Bedaion ere egiten dut lan.

Bizitzari aldaketa bat eman diozu, beraz.

Guztiz. Egun pare batean buruari bueltak ematen ari-tu nintzen curriculuma bidali edo ez, baina lan bal-

dintzak oso onak ziren, eta gainera naturan lan egiten da eta hori asko gustatzen zait. Baiezkoa eman nion eskaintzari.

Noizbait pentsatu zenuen lan honetan ariko zinenik?

Ez, inoiz ez. Ez dut uste inork duenik lurperatzaile lana bokaziotzat. Nik txikitik irakasle izan nahi nuen, eta bizitzak bueltak ematen ditu eta azkenean administrazioko ikasketak egin nituen, gizarte integrazioa ere ikasi nuen, eta inoiz ez nuen pentsatu honelako lan batean bukatuko nuenik, eta oso gustura nago.

Nolakoa ari da izaten esperientzia?

Oso-oso ona. Lan gehiena fisikoa da, eta lan gehiena belarrak ematen du. Belarra eta zuhaixkak moztu, eta dena txukun mantendu behar da. Mantenua egin, garbiketa, zerbait puskatzen bada konpondu, telefono bidezko arreta eta aurrez aurrekoa ere egiten ditugu, eta tokatzen denean edo familiak eskatzen duenean lurpetik atera edo exhumatu ere egiten ditugu. Eta nola ez, lurperatzeak ere egiten ditugu.

Egunero hiltzen da pertsona bat?

Ez. Enpresa moduan, ia Gipuzkoako hilerri guztietan aritzen gara, eta nonbait laguntza behar bada hara joaten gara.

Ez zara Tolosan bakarrik aritzen orduan.

Nik Tolosarako lan kontratua dut, baina enpresa bera denez, tarteka, laguntzen dut beste herrietan ere.

Lantoki moduan eroso da hilerri bat?

Bai. Oso lasaia da, eta eguraldi onarekin, gainera, oso polita da. Jendeak orokorrean oso txukun mantentzen du, lore askorekin...

Denetarik izango da...

Bai, baina orokorrean oso ondo eta polita edukitzen dute.

Baina negua gogorra da.

Bai, euri asko egiten duenean ezin da gauza askorik egin.

Grisa eta iluna.

Bai. San Blasen dago, eta haize asko ibiltzen da, baina niri ez dit beldurrik ematen.

Bakarrrik zaude hilerrian?

Ni Tolosan bakarrik egoten naiz, eta lurperatzeko garaian beste bat edo bi etortzen dira laguntzera. Pertsona batek hilkutxa batekin bakarrik ezin du; ezinekoa da. Guztira enpresan sei pertsona gara.

Erraza izan da lurperatzaile lanetara ohitzea?

Hasieran gauza batzuk harritu egiten zaituzte. Esaterako lehendabiziko lurpetik ateratzeak-eta, baina gauza guztietara bezala ohitu egiten zara. Aldaban eta Bedaion kolunbarioak badaude errautsentzat, baina lurrean ere sartzen dira hilkutxak. Hezurak baino ez dira. Animalien hezurak ikustera ohituta gaude. Nik ez dut beste ezer ikusi, eta hezurak bakarrik izanda ez dit ezertan eragiten.

«Hilerrian lan egiten dudanetik bizitza topera bizitzen saiatzen naiz»

Jendeari zertan lan egiten duzun esatean zein da lehen erreakzioa?

Lurperatzailea naizela esaten diet, eta denak harrituta geratzen dira. Egia esan guztiz harrituta geratzen dira, baina kuriositatea ere pizten zaie. Zer egiten dudan, zer ikusten

dudan... Morbo pixka bat badago. «Baina gustura zaude?», denen galdera izaten da. Eta nik oso gustura aritzen naizela esatean ere harritu egiten dira horrelako toki batean gustura ari naizelako. Beste askok beste lan bat iritsiko zaidala esaten didate, eta nik esaten diet ez dudala beste lanik nahi; gustura nago. Gertukoak jada ohitu dira, baina jendeari naturaltasunez hartzea falta zaio.

Zuk horixe nahi zenuen, ezta?

Bai. Aske lan egin nahi nuen, naturan eta lasaitasunarekin. Orain artean, beti jendearen aurrean egin dut lan, eta hilerria ere jendea etortzen zait, baina gutxiago. Buruhauste gutxiago ditut.

Nola bizitzen zenuen heriotza lanean hasi aurretik.

Naturaltasunez. Hiltzeari beldurra denok diogu, baina orain ikasi dudana da egun batetik bestera jada ez zaudela. Eta hilerrian lan egiten dudanetik bizitza topera bizitzen saiatzen naiz, eta nahi dudana egiten nahi dudana momentuan.

Familiekin harremana sortzen da?

ATARIAN jarrita Goierri eta Urola Kostako Hiltza egunkarietan toan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
 Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
 Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
 Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

Batzuekin bai. Ni enpatia handiko pertsona naiz, eta tratu goxoa ematen ahalegintzen naiz. Beraientzat momentu oso zailak dira. Paper kontu batzuk ere egiten ditugu, eta ahalik eta azkarren egiten ahalegintzen gara.

Lurperatzea bera familiarekin egiten da.

Udaletxeak eskatzen digun dokumentu bat betetzera hilerrira joan behar dute familiak. Beraiek esan behar digute zein den familiaren hilotza edo panteoia, nik jakiteko zein ireki. Eta lurperatzea noiz egingo den ere adostu behar izaten dugu.

Erraza da lurperatzearen momentua bera?

Oso jende gutxi izaten da edo izugarritzko jende pila, baina gu gure lana egiten ahalegintzen gara, eta ingurukoei ez begiratzen. Tentsioko momentua da, eta denak ondo atera behar du.

Zuentzat ere une hori ez da samurra izango.

Bai. Jendeak denetarik egiten du. Omenaldi oso politak egiten dituzte, eta nahiz eta ez ezagutu batzuetan bai hunkitzen naiz.

Gizonen mundua edo gizonekin lotzen den lana da zurea.

Bai. Esan didate beste bi emakume badirela, baina normalean gizonek egindako lana da. Nire enpresan denak gizonezkoak dira, ni izan ezik. Tolosako lurperatzaileak beti gizonezkoak izan dira. Lehen emakumea ni izan naiz. Badakit Tolosako Udalak generoa



«Lurperatzailea naizela esatean denak guztiz harrituta geratzen dira»

kontuan hartuta, ea saiakera bat egin zezaketen eskatu ziola enpresari, eta ni hartu ninduten. Ea honek jendearen pentsaera irekitzen laguntzen duen pixka bat, eta esparru guztietara zabaltzen den.

Zentzu horretan, nolakoa izan da gizonen artean lanean hastearena?

Nire kasuan ondo hartu naute eta erraztu didate, eta bat gehiago naiz beraientzako. Hasieratik guztia erakutsi didate. Nik ez neukan ideiarik ere, eta makinak-eta nola erabiltzen diren erakutsi didate. Oso ondo. Bai egokitu zait lurperatzeetan eta jendeari

entzutea nigmatik hizketan: emakumea naizela, lurperatzailea ote naizen... baina ez ditut gaizki hartzen. Azken batean, kuriositatea da eta jendea ohitu artekoa izango da.

Berdintasunerako bidean beste pauso bat, beraz.

Bai. Kasu honetan emakume bakarra naiz, eta beste bi badirela badakit, eta gehiago ere izango dira, baina normalean gizonezkoak izaten dira. Zalantzan egon nintzen elkarrizketa hau egin edo ez, baina lagunek animatu naute, eta gizonezkoena izan den esparru batean gu ere lan egiteko gai garela erakutsi nahi dut. Nik demostratu dut nire lankideen lan bera egiten dudala. Ikusarazi nahi dut eta ea jende gaztea bultzatzen dugun. Lan ezberdin bat izanagatik ere edozeinek egin ahal duela ikustea nahi dut. Noski, nahi duenarentzat eta gai denarentzat.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

Feedback



**AGUS TENA
GONZALEZ**
PSIKOLOGOA

Saiatu zara. Porrot egin duzu. Berdin dio. Saiatu berriro. Porrot egin berriro. Hobeto egin porrot». **Samuel Beckett.**

«Galdera bat erantzuteari uko egiten diozun bakoitzean, beste pertsonari bere baliabideak erabiltzen laguntzen diozu». **Fritz Perls.**

Oso gutxitan pizten dut telebista eta ez dut topo egiten epaitzen diren lehiakide saio horietako batekin. Munduari talentua erakutsi nahian, lehiakideek ezin dute tentsio-riktus bat alde batera utzi, eta beren emanaldiaren edo interpretazioaren segundo bakoitzean giroan nabari da akatsik ez egiteko presioa. Janaria prestatu nahi izanez gero, alde batetik bestera ikusten dira, oso gutxitan gozatzen, alarma-egoe-
ran egiten zaizkien probak egiten, osagaiak isurtzen eta kideekin nerbioak galtzen, epaileen begirada pantokratikoaren pean. Ez dio axola zer egiten duten, ez du inolako baliorik egiten dutenak, **Ristoek, Edurneek, Rosarioek, Jordiek, Pazpadillek, Melen-
diek** eta gaur egungo gainerako autoritate-figurek, entseguetan eta emanaldian zehar buruan bueltaka izan duten galderari erantzuten dioten arte: «Nola

egin dut?», «Hobeto egin nezakeen?», «Zein dira nire indarrak eta nire ahuleziak?». Eta ikusle gisa, show bat ikusteari utzi diogu, ebaluazio bat ikusteko, eta «zer moduz egon naiz?» galdera, eta irribarre behartuen azpian ezkutatu nahi den mina eta desilusia, ikuskizun bera bihurtzeko. Norbait abesten, sukaldatzen, dantzatzen, josten eta jakin ezazu zer gehiago egiten ikusten dugu eta gero ustezko aditu batzuek -haien irizpidea ez baita inoiz zalantzan jartzen-, errukirik gabe epaitzen dute, *bullying*-era modu arriskutsuan hurbilduz. Iritsi gara puntu batera non kontua ez den gauzak egitea, baizik eta gauzak egi-
tea eta gero galdetzea «hobeto egin nezakeen?».

«Zer moduz egin dut?», edo «zer iruditzen zaizu?» galdera hauek gure eguneroko ekintzarik hutsalene-
tan ere ikusten ditugu, eta **sare sozialetan** argazki, irudi eta esaldiekin egiten dugu topo, gure zirkulu hurbilenari zein guztiz ezezagunei zuzenduak, zer-
bait komunikatu nahi dugunekin eta feedback pre-
ziatua berriro lortu nahi dugunekin. Askotan, me-
zuak, irudi, hitz edo bietakoak, positiboak izan ohi
dira, edo positibo faltsu bat, non bizitzaren zati bat
erakusten den: ahuakatea duen gosari batetik Eiffel
dorreak ondoko *selfie* batera, suposatzen dela zein
eder, bizkor, ausart eta zorionekoak garen transmiti-
tzen duela, hain zuzen ere, zein ederrak, bizkorak,
ausartak eta zorionekoak garen esan diezaguten bi-

latuz, agerian geratuz irudi pertsonalaren eraikuntza horiek berekin dakarten manipulazio inplizitua. Baina esperientzia bat mezu bihurtzen badugu, esperientziak helburu izateari uzten dio, eta bitartekoa bilakatzen da, galdera bihurtzen da: «Zer iruditzen zaizu nire bizitza?».

Telebistako epaiketak ikusten ditudanean, eta sare sozialen iritzi-eskaria ikusten dudanean, nik ere galderak egiten dizkiot neure buruari: zer moduz egun batean gaizki ateratzen denari barre egiten badiogu? Zer axola dio janaria erretzen bada? Zer moduz zer-bait egiten badugu hori egite hutsagatik, talenturik gabe? Eta egiten dugunean denbora gure alde badugu, eta ez kontra?

Berezkotasuna haurtzaroaren ezaugarria da. Nor-tasuna kanpoko mezuen bidez eratzen eta moldatzen da; mezu horiek esaten digute berez adierazten duguna onargarria den ala ez, edo gure beharrei erantzuten zaiela ikusten dugun ala ez. Programa horietan ezinbestean ikusi behar da gizarte infantilizatu baten isla, hitzaren zentzurik okerreanean, non hazkunde pertsonala askoren iritziak baldintzatzen duen. Esan diezazutela egin du-

«Programa horiek gizarte infantilizatu baten isla dira, hitzaren zentzurik okerreanean, non hazkunde pertsonala askoren iritziak baldintzaten duen»

zuna ondo edo gaizki dagoen, zuzena den ala ez, hobetu daitekeen ala ez, egiten ari zinela sentitu duzun moduari balio osoa kenduz (jakina, beste aldetik, gaizki, besteentzat egiteko zeundelako une oro, beste iritziaren zain eta zure sentipenetatik oso des-konektatuta), heldutasunaren eta helduen bizitzaren guztiz kontrakoa da.

Psikoterapian, bakarka zein taldeka, feedbacka funtsezkoa da, eta helburua da pertsonak haur manipulazioak eta jarrerak alde batera uztea eta bere ekintzen ardura bere gain hartzeko gai izatea. Beste pertsona bati estrategiak, eta ez iritziak, eskaintzeko eta sustatzeko benetako nahia da. Horretarako, eta bizi ditugun denboren oso kontrakarrean, ebaluatu gabe, interpretatu gabe, pertsona heldugabetasune-

an mantentzen duen hazkunde pertsonala eragozten duten paternalismorik gabe, kontzientzia hartzea errazten du, eta, aitzitik, azterketa pertsonala arakatuz eta sustatuz, eta ulermena eta entzute aktiboa erakutsiz, pertsona feedback garrantzitsuenera irits dadin, hau da, bere buruari esatea «pertsona heldua naiz eta nire ekintzen erantzule egiten naiz».



«NIRE GAUZAK EGITEN BEZAINBESTE DISFRUTATZEN DUT JENDEAREKIN LAN EGITEN»

XABIER ZEBERIO ETXETXIPIA
MUSIKARIA

Alos Quartet hari laukoteko kidea da eta taldearentzako musika sortu eta moldatzeaz gainera, zeregin horretan aritzen da beste hainbat musikarientzat etxean muntatua duen estudioan. Beste artistekin lankidetzan aritzeak bere ikuspegia zabaldu eta aberasten duela dio.

Jon Miranda Tolosa

Eñaut Elorrietaren disko berriaren moldaketak egiten ari da eta aurki Paul Urquijoren *Irati* pelikularentzat prestatu duen soinu bandaren grabazioari ekingo dio. Xabier Zeberio Etxetxipia (Tolosa, 1978) musikaria proiektu askotan dabil eta horien inguruan hitz egiteko tarte hartu du TOLOSALDEKO ATARIA-arekin.

Zure egunerokoaren zenbatekoa okupatzen du musikak?

Asko. Goizean goizetik, errutina bat daukat: gimnasia pixka bat egiten dut biolinarekin, martxan jartzen naiz, eta moldaketak, konposizioak eta bestelako la-

nak egiten ditut. Astean hirutan, arratsalde, eskolak ematen ditut Aguraingo musika eskolan. Musikaren inguruan, beraz, jira-biran ibiltzen naiz ia egun osoan.

Musika mundutik aparte egoteko beharra sentitzen al duzu?

Bai. Deskonektatzeko gaitasuna badut, suertez. Mendira joan edo kirola egiten dut horretarako. Askotan pasatzen zaigu pasioa ofizio bezala dugunoi, ez gara publiko normala bezainbeste gerturatzen musikara. Disko pila bat izaten dut entzuten hasteko prest eta sekula ez diet heltzen.



Zuk musikarik gabeko oroitzapenik baduzu zure bizitzan?

Ni oso goiz hasi nintzen biolina ikasten, lau zpabost urterekin, beraz ia ez dut musikarik gabeko oroitzapenik. Batetik ez bada bestetik beti izan dugu musika etxean. Gurasoengandik jaso dugu musikarekiko maitasun hori eta horren froga da sei anai-arrebetatik lau musikariak garela.

Musikari gisa, inoiz uzten al zaio ikasteari?

Beste ofizioetan bezala izango dela pentsatzen dut. Zenbat eta gehiago jakin konturatzen zara orduan

eta gutxiago dakizula. Egunero-egunero ikasi beharra dago, praktikatu eta gauza berriak ikasteko grina eta ilusioa eduki behar dituzu.

Inoiz izan al duzu hautua egin beharraren sentsazioa? Musika ez beste arloren batean irudikatu izan duzu zeure burua?

Garai bateko UBI bukatu, ikastola amaitu, selektibitatea egin eta biolineko goi mailako ikasketak bukatzeko urtebete falta zitzaidala, urtebete hartu nuen pentsatzeko karrera bat egin nahi ote nuen edo musikara dedikatu. Eta justu, orduantxe, ate guztiak parez

«Niretzako Oskorri unibertsitatea izan zen. Hogei urte bizi izan nituen beraiekin»

pare zabaldu zitzaizkidan. Goi mailako ikasketak amaitu eta urte hartan, 1997an, EGO sortu zen. Hautaprobetara aurkeztu eta lehenengo promozioan sartu nintzen. Handik hiru hilera sortu zitzaidan Oskorri taldean sartzeko aukera.

Nola sortu zitzaizun aukera taldean parte hartzeko?

1997ko irailean, Oskorriren biolin jotzaileak taldea uztekotan zegoela esan zuen. Orduan Natxo de Feliperi okurritu zitzaion EGOk zuzendari Juanjo Menari aholku eske joatea. Orkestran norbait ba ote zegoen galdetu zion. Bizpahiru biolinisten izenak eman zizkion, tartean nirea, eta De Feliperen etxean bildu ginen. Sei bat biolinisten casting-a izan zen eta horrelaxe aukeratu ninduten.

Zuk ezagutzen zenuten taldea lehenagotik.

Bai, noski. Gure etxean ohiko taldea zen. Beti entzundako taldea. Pentsa, kontzertu baten inguruan dudan lehenengo oroitzapena, Lizarrako Nafarroa Oinezen Oskorriren kontzertu batena da. Imajinatu ezazu, zure idolo horien taldean sartzeko aukera duzula. Garai horretan oso inkontzientea nintzen, erdi umea. Ez nintzen oso ondo jabetzen zer zetorkidan gainera. Eta hobe horrela.

Zer suposatu zuen Oskorrin parte hartzeak?

Beti berdina esaten dut, niretzako unibertsitatea izan zen. 20 urte bizi izan nituen beraiekin, esperientzia errepikaezinak eta bizipen paregabeak gordetzen ditut. Oso-oso eskertuta nago eman zidaten aukeragatik.

Emanaldiak alde batetik bai, baina estudioko lan asko ere grabatu zenituen Oskorrarekin. Zer moduko lana da zuretzat grabazio estudiokoa?

Nik biak ditut gustuko. Zuzeneko kontzertuetan publikoarekin kontaktu zuzena duzu, txaloak jasotzea ederra da, feedback hori gauza polita da musikari barentzat. Baina estudioko lanak badu beste zerbait. Oskorrikoei beti eskertuko diedan gauza bat da nire kantuak konposatzeko aukera eman izana. Taldean

sartu nintzenean, lehenengo diskotik sortu ahal izan nituen nire kantuak. Hori pentsaezina zen niretzat adin horrekin. 19-20 urterekin disko baten zure bi kanta grabatu ahal izatea ez zaio normalean zure adineko gazte bati gertatzen. Eskuzabaltasun handia izan zuten nirekin eta asko dele-

gatu zuten Oskorrikoek niregan. Hori ikasbide handia izan zen niretzat.

Oskorri bezalako talde batean aritzea exijentzia handiko lana dela esango zenuke?

Exijentea bada. Ez nuke esango bereziki exigientea, baina bazuen bere eskakizuna. Lan profesionala zen, oso serioa, lan karga handiko taldea zen Oskorri eta dedikazio eksklusiboa zuen talde bakarrenetarikoa garai horretan. Taldekide guztiak horretatik bizi ginen, hori zen gure lanbidea. Beste gauzak egin genitzakeen baina lehentasun osoa Oskorri zen. Eskatzen zuen konposatzea, entsegu asko egitea, bidaia asko, kontzertuak... Neke asko bai, baina baita satisfazio handiak ere. Jaialdi handietan parte hartzeko aukera izan genuen, leku asko ezagutu, jende askorekin egoteko aukera izan genuen. Hori gurekin daramagu betirako.

Sentitu al zenuen bertigorik taldea desagertu zenean?

Bai. Momentu kritiko xamarra izan zen. Egia da nik paraleloki beste lan asko egiteko aukera izan dudala. Moldatu nintzen. Gainera, 1999an, Alos Quartet sortu genuen eta horrekin ibilbidea egiteko aukera izan dut, gaur arte. Oskorri desagertu zenean, egia da, bertigo apur bat sentitu nuela eta beldurra izan nuen nire musikari bizitza bertan bukatuko ote zen. Nire sorpresa-rako Oskorri bukatu zenetik askoz ere lan gehiago daukat. Jendeak taldean ikusten ninduen eta ulertzekoa da proposamenak egiteko niregana hainbeste jo ez izana. Orain aktibitate nahikoa frenetikoa daramat. Batzuetan, gehiegitxo ez ote den ere galdetzen diot neure buruari. Ez da erraza neurria hartzea. Dena den, oso zorteduna sentitzen naiz proiektu askotatik deitzen didatelako.



Ez zenuen aldi luzea pasa oholta zapaldu gabe.

Egia da. Oskorri desagertu eta hilabete gutxira Benito Lertxundik deitu zidan bere taldean sartzeko. Sei bat urte daramatzat berarekin. Ezin naiz kexatu.

Zein da musikari baten eta bere instrumentuaren arteko harremana?

Esplikatzea zaila da. Maitasuna eta gorrotoa, aldi berean. Hainbeste ordu pasatzen dituzu zure instrumentuarekin. Askotan sentsazio kontua izaten da. Goizean esnatu eta bat-batean sekulako biolinista sentitzen zara eta biharamunean instrumentu berdina hartu eta ez zaizu ezer ateratzen. Harreman berezia da. Biolinarekin batera, biola izan dut bidaide azken urteetan, eta bi horiei nyckelharpa batu zaie. Gaur egun, biolina bezainbeste edo gehiago jorratzen dut nyckelharpa.

Maitemindu egin zinen instrumentuarekin?

Bai, egia da. Biolina ez nuen nik aukeratu, nire gurasoek baizik. Horrekin ere eduki dut buru-jatea. «Hau benetan gustatzen zait edo ohitura kontua da?». Nahiz eta horrelakoak burutik pasa, ni oso maiteminduta nago biolinarekin ere, baina nyckelharpa bada nik helduaroan aukeratu dudana instrumentua. Hamaika proiektutan parte hartzeko aukera eman dit nyckelharpak.

Zer du bada instrumentu horrek?

Suediako instrumentu nazionala deitzen diote, Erdi Aroko musika instrumentu berezia da, tekla bidez jotzen den biola moduko bat. Beste sonoritate bat lantzeko aukera zabaldu dit eta nire sorkuntza beste eremu batzuetara eramateko bidea erakutsi. Suediarrentzat nyckelharpa da, paralelismoa eginez, guretzako trikitia dena. Musika herrikoia eta dantzarako erabiltzen da, oso errotuta dago bertako musika tradizionalan. Haiei arraroa egiten zaie beraien instrumentua erabiltzea

beste musika mota batzuk egiteko.

Beste nyckelharpa bat duzu bidean.

Bai. Duela 20 urte bertako luthier bati eginarazi nion orain arte erabili dudana. Urte dezente ibili naiz beste luthier batekin hartu-emanetan. Ez dago jende asko horretara dedikatzen dena. Egile gutxi daude munduan. Duela sei urtetik nabil nyckelharpa berri bat eskuratzeko zain eta iritsi da momentua. Uda honetarako etxean izango dut. Umetxo berri batekin bezala, poz-pozik nago.

Beti aritu zara harizko instrumentuen familia horretan?

Bai. Kontrabaxua ere jotzen dut. Ibili nintzen urte batzuetan jazz kontrabaxuko ikasketak egiten Donostian. Etxean badut eta erabiltzen dut grabazioetarako. Proiektu ezberdinetarako darabilt, tinbre ezberdi-



nak lantzeko eta ñabardura ezberdinak txertatzeko aukera ematen didalako. Moldakortasun hori ematen dit kontrabaxuak.

Zein musika estilotan kokatuko zenuke zeure burua?

Ez da erraza musikari bati etiketa jartzea. Musika iturri askotatik edan dut nik eta jarraitzen dut edaten, nire sorkuntzan nabari da hori. Alos Quartet-eko musika sortzearen ondorioz uste dut badudala zigilu moduko bat. Edaten dut herri musikatik, noski, baina badut minimalismoaren kutsua, musika neoklasikoaren kutsua, gauza elektronikoak ere asko gustatzen zaizkit. Zaila da nire musika, denda bateko apalategian kokatzea. Nik hori gauza positibo bezala ikusten dut.

Zure izaera propioa landu duzula uste duzu?

Nik baietz uste dut. Nire xumetasunean, ibilbide horretan, urteen poderioz, lortu dut bereizgarri bat. Ukitu horiek ezagunak zaizkio jendeari.

Moldakorra izateak estilo diferenteetako musikariek lan egiteko bidea zabaldu dizu?

Bai, hori da. Niri asko betetzen nau horrek. Asko gustatzen zait musika ulertzeko modu ezberdinak ikustea eta ikastea. Pop musikari batekin edo rock musikari batekin lan egitea, edo folk talde tradizional bati moldaketak egitea, edo musika klasikoa edo antzina-ko musika jotzea... Guzti horrek betetzen nau, eta aldi berean, aniztasun horrek guztiak betetzen du nire motxila. Gero zu zaren hori iturri guzti horietatik da-

tor. Gauza bakarra egiteko gai bazara, edo gauza bakarrean zentratzen bazara, zaila da eboluzionatzea.

Zenbat musikarirekin kolaboratu duzu?

Ez dakit ondo kalkulatzen. Esango nizuke 150 disko baino gehiagotan kolaboratu dudala. Artista pila batekin. Oso zorteduna

sentitzen naiz hainbeste jendek nigan konfiantza jartzen duelako. Nire gauzak egiten bezainbeste disfrutatzen dut jendearekin lan egiten.

Nola jotzen dute zuregan?

Ez dakit esaten. Ni saiatzen naiz nire lana ahalik eta ondoen egiten. Edozein lan ahalik eta serioen hartzen saiatzen naiz, laguntza eske datorkidan musikaria ezaguna edo ezezaguna izan, hasiberria edo kontsakratua, talde txiki edo handia izan, beti seriotasun handiarekin eta nire partetik daukadan guztia ematen dut lan bakoitzean. Batzuetan gehiago asmatzen da besteetan baino, baina nire saiakera behintzat %200 ematea izaten da. Lanbide hau, beste asko bezala ez da erraza, gorabehera askokoa da, baina egia esatea nahi baduzu, oso pozik eta harro sentitzen naiz nire ibilbidearekin.

Konposizio eta moldaketak egiten dituzu artista askorentzat. Ez al da zure lana ezkutuan geratzen?

Bigarren plano batean bai. Zure etxeko estudioan grabatzen orduak ematen dituzu isilean, baina hori da proiektu ezberdin askori zure ekarpena egiteko modua. Zure ukitua emateko aukera ematen dizu. Hor zaude, bigarren plano batean, baina ni eroso nago. Ez daukat lehenengo planoko presioa, baina bai neure buruari jartzen diodana. Jendea askotan ez da konturatuko zeinek egin dituen moldaketak disko batean edo zeinek jotzen duen biolina, ez dakit zein lanetan. Hori ez da garrantzitsuena, norbera bere buruarekin gustura egotea baizik eta bidean gozatzen

ikastea. Niretzat lan horiek guztiek badute osagai sortzailea. Niretik jartzeko aukera ematen dit, nire ikuspuntua ematen diet besteen lan askori. Hori oso aberasgarria da.

Musikariekin duzun lankidetzaz zer moduzkoa da?

Ona. Psikologo lana ere egin behar da, denok baititugu gure segurtasun faltak eta gure ikarak. Bestalde norberak bere gustuak ditu eta hori dena kudeatu behar da, zu ez baitzara zeure buruarentzat lanean ari, beste artista batentzat baizik. Noraino duzu askatasuna zuk nahi duzuna egiteko eta noraino egin behar duzu artistak eskatzen dizuna? Oso eremu lausoa da eta etengabe eskatzen dute negoziazioa. Oreak lan bat da. Nik, hala ere, zorte handia izan dut, ez dut inoiz inorekin arazorik izan eta jendeak oso eskuzabal jokatu du nirekin. Ia inoiz ez didate ezer atzera bota.

Musikari horiekin aritzen zara gero zuzenekoetan?

Ez beti. Noizean behin hots egin izan didate aurkezpenetarako eta horrelakoetarako. Gauza bereziren bat sortzen bada joaten naiz. Proposamenak asko izaten ditut, baina agendan ez naiz kabitzen. Gauzetara ezin iritsi ibiltzen naiz, eta nahiz eta gustatuko litzaidakeen jende askorekin jotzea, ezin dut. Kostata bada ere, hasi naiz ezetz esaten ikasten. Gogorra da, baina zure osasunari ere kontu egin behar diozu. Alos Quartet-en eta Benito Lertxundirekin nabil zuzenekoetan. Gero, Iñar

Sastre eta Jagoba Astiazaranekin batera, *Arineketan* proiektuan ere banabil. Amaia Elizaranekin ere asko ibiltzen naiz emanaldietan. Horregatik ez da erraza emanaldi guztiak agenda bakarrean kudeatzea.


Lana etxean egiten duzu.

Bai. Hasierako urteetan, beti estudioa joan behar izaten nuen eta horrek gauzak konplikatu egiten zituen. Studioko lana mugatua da, denbora diruak mugatzen du. Etxean estudioa edukitzeak sekulako askatasuna ematen dit frogak egiteko, kendu eta jartzeko, maketak bidaltzeko eta gauzak aldatzeko. Hobe da lan egiteko modu hau. Entregatu beharreko data argi edukita, nik antolatzen dut neure burua. Bizitza errazagoa egiten zait horrela. Azken urteetan hartu dudan

erabaki hoberenetako bat izan da estudioa etxean muntatzea. Egiten ditudan ekoizpenen %95 etxetik bideratzen dut. Moldaketak egin eta sokak grabatzen ditut eta horrelaxe bidaltzen ditut, artista bakoitzak gero bere estudioan nahastu ditzan.

Nola lortzen da talde batek 20 urte baino gehiago betetzea?

Alos Quartet kasualitatez sortu zen, Niko Etxartek elkartu gintuen Zuberoako bere estudioan duela 22 urte. Ez genuen elkar ezagutzen orduan, baina harreman bat sortu zen orain arte iraun dena, proiektuz proiektu. Ilusioz, gauzak ahalik eta hobekien egiteko intentzioarekin jardun dugu eta nik uste dute gauzak oso ondo joan zaizkigula. Musika



Motzean

Musikari bat?

Olafur Arnalds.

Musika talde bat?

Itoiz.

Kantu bat?

Hertzainak-en *Aitormena*.

Kontzertua emateko toki bat?

Bartzelonako
Palau de la Música.

Instrumentu bat?

Nyckelharpa.

talde baten oinarrian, edo beste edozein giza talderen oinarrian humanitateak egon behar du; Inportantea *feeling*-a edukitzea da, ez da hain garrantzizkoa musikari onak izatea. Eta gero, Alos Quartet-en kasuan sekretua da, inongo pretentsiorik gabe sortutako zerbaite izan dela. Inongo presiorik gabe eta hel-

Piratas, Ken Zazpi... Hor ere asko ikasteko eta esperientzia ederrak bizitzeko aukera izan dugu.

Diziplinartekotasun bat ere badago zure lanetan.

Nondik nora dator hori?

Azkenaldian lan asko egin dut dantzaren inguruan.

Hasi nintzen Aukeran dantza konpainiaren *Geltokia*

ikuskitzuneke musika sortzen eta azken urte hauetan oso intentsuki nabil Amaia Elizaranekin. Azkeneko bizpahiru ikuskizunetako musika sortu dut eta berarekin segitzen dut emanaldietan. Antzerki obretarako musikarekin ere probatu dut, Markeliñe taldearekin bi espektakulutan jardun dut eta zinearen munduan sartzeko zortea izan dut. Hainbat soinu banda grabatu ditut, adibidez, *Akelarre* filmekoa, Goya saria irabazi zuena. Paul Urquijoren *Irati* izeneko pelikularen soinu banda grabatuko dugu aurki. Zinemarena da esparru bat asko interesatzen zaidana, oso erakargarria niretzat. Lana sakon egiteko aukera izan dut azken urteotan eta bide horretan jarraitu nahi nuke aurrerantzean ere.

Aldi berean gauza batean baino gehiagotan aritzeak ez dizu trabarik egiten?

Batzuetan bai. Enkargu bat egin berri dut, Ikas-Elkarrrek egindakoa, emozioen ingurukoa, Haur Hezikuntzarako materiala da, soinu banda moduko bat. Oso gauza diferenteetan nabil, batetik bestera, baina denak egiten zaizkit interesgarri eta zaila egiten zait

horietako askori uko egitea. Proiektu askotan nabil eta astez aste nabil nire agenda antolatzen.

Gaur egun, lanak dibertsifikatzearekin batera, musikari batek bizibiderik ateratzen al du disko salmentatik?

Diskoak dira aitzakia bat gero

buru estratosferikorik gabe egin dugu lan. Bidea egitea da kontua eta bideak ekarri gaitu hona.

Alos Quartet-ek ere bide eman dizu beste hainbat proiektutan parte hartzeko.

Bai. Taldeak bi lan ildo nagusi izan ditu. Batetik, bere sorkuntza propioa eta diskoak egon dira eta bestetik, gure beste lan ildo inportantea hainbat artistekin egin izan ditugun lankidetzak dira.

Gure lehenengo proiektu garrantzitsua, Dulce Pontes abeslari portugaldarrarekin egindakoa izan zen. Urte dezentetan ibili ginen Espainia osoan. Eta handik, beste askorekin aritzeko aukera sortu zitzaigun: Carlos Nuñez, Kepa Junkera, Los

«Jendeak oso eskuzabal jokatu du nirekin. Ia inoiz ez didate ezer atzera bota»

proiektua martxan jarri eta emanaldiak lortzeko. Guk egia esan azkeneko urteetan zorte ikaragarria izan dugu. Azken hiru urte hauetan emanaldi asko emateko aukera izan dugu. Alos Quartet formazioa nahikoa arraroa da, hari laukote bat da, ez gara *mainstream*-eko pop talde bat, baina bere txikitasunean asko mugitzeko aukera izan dugu. Pandemia guzti honekin, ez zaizkigu gauzak batere gaizki joan, agian gehiago sufrituko zuten rock talde eta musika gogorragoa egiten dutenek, haiek muga asko izan dutelako edukiera aldetik. Gure musika lasaiagoa denez, normalki izaten ez den esparru askotan egoteko aukera izan dugu. Gustura gaude.

Musika minoritarioa da egiten duzue-na?

Ez dakit hitz egokia hori den. Badu bere publikoa. Guk ez ditugu masak mugitzen, alde horretatik begiratuta, izan daiteke minoritarioa, baina minoria zabal batentzat dela esango nuke.

Zein da Alos Quartet-en publikoa?

Denetarik. Dena den uste dut publiko heldua dela oro har. Gurea ez da 13 urteko gaztetxoek entzuten duten musika. Hala ere, ez da hainbeste zein jenderi gustatzen zaion egiten duzun musika, baizik eta zein irisgarritasun duen zure musikak, zeinek duen sarbidea guk egiten dugun proposamenara. Gu ez gaude *Gaztea*-n eta horrelako lekuetan, tristeza bada ere. Baina sentsazioa dut behin gure musika behar den tokira iristen denean geratu egiten dela. Hori da inportanteena. Gure musika katalogatzen zaila da, baina entzuten duenak topatzen du zerbait berezia eta ezberdina, hunkitzeko modukoa.

Zaila da musikaren esparru guztiak gizarteratu eta publikoaren-gana helaraztea?

Bai. Ezjakintasuna dago alde bate-

tik eta txikitatik, eskoletan pedagogia egin behar da. Kontzertu pedagogikoak eta bestelakoak antolatu beharko lirakeke, adibidez. Azken batean, egunero entzuten duzun hori gustatzen zaizu. Niri ere masiboki zabaltzen diren gauza asko izugarri gustatzen zaizkit eta kalitate handikoak iruditzen zaizkit. Baina



abaniko hori zabaltzea polita da eta momentu asko daude musika estilo ezberdinak entzuteko. Hori baloratzea inportantea da.

Gizarteak baloratzen du sortzaileen lana?

Ez dakit baloratzen duen edo ez. Nik baloratzen dut eta hori da oinarrizkoena. Gu artisau batzuk gara. Oso pozik nago nire bizimodua musikatik duintasunez ateratzeko zortea izan dudalako. Gustuko lana egiten dudalako, sekulako antzokietan jotzeko aukera dudalako, diskoak grabatzeko aukera... Errekonozimendua badaukat eta horrek asko betetzen nau. Ni apreziatua sentitzen naiz, Oskorriko garaietatik ezagutzen nau jendeak eta maitasun hori helarazten dit.

«Alos Quartet izan daiteke minoritarioa baina minoria zabal batentzako da»

Argazkigintzaren apologia COVID-19aren ostean



ION MINTEGIAGA
'MINDE'
LANGILEA

C OVID-19aren izurriteak, trostan, kontro-
la galduta zihoan jendarte bat kolpetik
gerarazi zuen, halako pausa bat ekarri.
Ordu-arte faltan botatzen genuen altxor
preziatu bat eskura etorri zitzaigun: denbora. Eta ze
gauza ederragorik, denbora aprobeztatzea baino.
Aprobeztatzea gutxi ez, eta baten batzuok den-
bora harrapatzen ere saiatu gara argazki kameren
bitartez; instante batzuk ebasten sikiera.

la mundu osoan *fotografia* deritzo argiaren bitartez irudi iraunkorrak er-
diesteari. Euskarazko *argazkia* garaiko garbizalekeriari dagokio.

Lehen irudiak kaxa ilun batean zulotxo bat eginda hasi ziren islatzen, bai-
na gainazalean grafiatzea prozesu kimikoen bitartez soilik lortu zuten. Ar-
gazki bakoitza nekoso zen. Argazkilariak makina pisutsua maneiatu behar
zuen, eszena alde zurretik hautatu, eta emaitza ez zen berehala ikusten.

Teknologiak eta aro digitalak sozializazioa eta azkartasuna ekarri ditu.
Gaur egun edonork, sakelakoan, kamera bat du noiznahi erabiltzeko.

Arazoa bestelakoa bihurtu da. Gain-ekoizpena. Behatz puntarekin pan-
tailaz pasatzen behar den tartea irauten dute argazki gehienak; asko bide-
an galtzen dira.

Sare sozialen hedapenarekin irudiak beste dimentsio bat hartu du. Irudiak
asko ukitzen dira, iragazkiekin, edizioan, ordenagailuan... maiz errealitatetik
eta naturaltasunetik urrunduz. Argazkilaria bera epizentro bihurtzeko joera
antzematen da, halako niaren gorazarre bat. Narziso berak urmaela mugikor
batengatik gustura aldatuko zukeen *selfie*ak egiteko.

Bada argazkiak egiteko beste modu bat. Tolosako kultur etxeak eskain-
tzen dituen argazki ikastaroak aipatu nahi nituzke. Iñigo Royo maisu, argaz-
kigintza, kameraren bisoretik baino, pertsonen begietatik ikustarazten ira-
ksten du, irudia istorio bat kontatzeko modu bezala landuz eta edertasuna
toki arruntetan topatuz.

Tailerrean halako mikroklima bat sortzen da, patxadatsua, barea, gertu-
koa. Klisk eta klask aritu aurretik behatzera animatzen gaitu, egiten dugun
horri zentzu bat ematera. Bizimoduari ekiteko modu txarra ere ez zait irudi-
tzen. Norbera bestearen parean azaltzea baino, norberaren ikuskera parti-
kularra besteei eskaintzea.

Udaberria da. Paisaiak ederrak eta ura nonahi daude kamera eskuan zer
suma aritzeko.

Tarteka gure islak bilatzeak ere ez du kalterik egiten.

**«Tailerrean
halako
mikroklima bat
sortzen da,
patxadatsua,
barea, gertukoa.
Klisk eta klask
aritu aurretik
behatzera
animatzen gaitu,
egiten dugun
horri zentzu bat
ematera»**

Bizitza serio hartzea



**ONINTZA LASA
ARTEAGA
TOLOSARRA**

Bizitza serio hartzen duzun horietakoa zara edo larri hartzen duzun bestelakoa?

Azkenaldian, komunikabide ezberdineko albisteak jarraituz, munduaren amaiera er-tzean gaudenaren itxura har-

tzen dut. Albistegietako berri eta kontakizunek, munduan zehar ematen den errealitatearen ikuspegi oso ezkor eta gogorra islatzen dute. Beti ez agian, baina maiz, oso maiz.

Honelakoak izango direla ukatuko ez dudan arren, pandemia, gerra eta ekonomiaren zenbaki gorri-gorrien ondotik albiste gozoago eta alaiagoak izango

kaltea. Berriro ere, hortaz, orekaren beharra nabarmentzen da. Gertaera makurrak saihestezinak direnean, oreka jarreraren barruan egon daiteke. Kalteari edo gaitzari aurre egiteko aldarte edo moduan.

Seriotasun hitza batzuetan, tristura, drama eta honelakoekin harremantzeko joera dago; larritasunarekin, alegia. Eta munduan zehar gertatzen diren eta kolpetik iristen diren zoritxarreko jazoerak hainbeste direnean, bizitza serio hartzea erabaki dut. Izan ere, mundua hobetu daitekeenaren kontzientzia izan eta gure aletxoa jartzea gauza bat da eta bestea etengabe auhen egiten aritzea da.

Urteetan aurrera joan ahala, egun batetik bestera, bat-batean norberaren bizi egitura goitik behera alda daitekeela ezagutzeko aukerak gero eta gehiago izaten dira. Eroriz, eroriz, oinez ikasten da eta ikasgai

**«Bilatu gabe gehiegixotan iskin egin nahi diegun arren,
bete-betea aurkitzen gaituzten kolpeak asko direlako,
bizitza serio bizitzearen aldeko aldarria egin nahi dut oraingoan;
alegia, une oro errepikaezina izango denaz sinetsita egotea»**

direnaz ziur naiz. Betikoa, ordea. Saldu, besteek saltzen dute. Sentsazionalistak izango gara, agidanez.

Maskararik apenas ikusten dugun garaiotan eta pandemia gehienontzat oroitzapen txar bat besterik ez den honetan, ondorioen berri jakiten hasi gara. Eta hara non *Doomscrolling* edo albiste txarrak kontsumitzeko ohitura eta beharra garatu omen duten pertsona askok.

Buru argien beste ebidentzia zientifiko batzuk erreparatuz, agerikoa omen da ezkortasun guzti horrek modu jarraituan buru osasunean eragiten duen

garrantzitsua iruditzen zait alferrikako sufrimendutan denbora ez galtzea.

Bilatu gabe gehiegixotan iskin egin nahi diegun arren, bete-betea aurkitzen gaituzten kolpeak asko direlako, bizitza serio bizitzearen aldeko aldarria egin nahi dut oraingoan; alegia, une oro errepikaezina izango denaz sinetsita egotea. Bizitza bakarra delako, pasatzen uzten den egun bakoitza, egin nahi eta inoiz egiten ez den bidaia, gozatu gabeko lagunarteko abagunea sekula bueltatuko ez delako. Askotan ez da erraza, ados. Baina bizitzak honela zentzua hartzen du.



**IDOIA
APAOLAZA**
PSIKOLOGOA

Eguneroko pentsamenduak nola kontrolatu

Jaikitzen garenetik oheratu arte burutik hainbat eta hainbat pentsamendu igaroko dira, abiadura bizian. Momentuaren arabera pentsamenduak azkarragoak izango dira, biziagoak eta eragin gehiago izango dute guregan. Honela, antsietatea sortzen duen ekintzaren bat egin behar denean, adibidez, lan elkarriketa bat, urduritasunak pentsamenduak abiadura bizian ibiltzea bideratuko du eta ondorioz, pentsamendu gehienak errepikakorrek eta ezkorrek izango dira. Aldiz, oporretan gaudenean, pentsamenduak polikiago ibiliko dira eta askotan iraganeke edota zentzurik gabeko pentsamenduak pasako dira burutik.

Nola kontrolatu gure pentsamenduak?

- Azter dezagun zer gertatzen zaigun. Gure eguneroko bizitzan, momentu lasaiago eta mugituagoak izaten ditugu. Normala da estres momentuetan pentsamenduak azkarragoak, bortitzaagoak eta mingarriagoak izatea, lasai pasako da eta etorriko dira momentu lasaiagoak.

- Momentu lasaiak bilatu. Eseri edo etzan leku lasai eta seguru batean. Begiak itxi eta saiatsu arnasketan zentratzen, burura etortzen diren pentsamenduei pasatzen utzi, gure arreta arnasketan zentratuz eta ez pentsamenduetan.

- Kontzentratu gure gorputzean. Arreta jarri egiten ari zaren horretan, oinez banoa arreta oinetan, gorputzaren mugimenduan, kanpoko zaraketan jarriko dut.

- Pentsamenduari denbora tarte bat eskaini. Pentsamenduari denbora tarte bat eskaini eta gero esan pentsamenduari: «Nahikoa da zure denbora amaitu da». Burua zurian utzi eta arreta egiten ari denean zentratu.

- Pentsamenduak orri batean idatzi.

Pentsamenduak, batez ere, kezkak orri batean idatzi eta irtenbidea bilatzen saiatu. Sailkatu zer-nolako garrantzia daukaten gure bizitzan eta aurki ditzakegun irtenbideak kezkatzen gaituenari. Gero indarra jarri pentsamendu baikorretan, irtenbideetan pentsatu eta sentitu nola lasaitzen garen.

Zoriontasuna eguneroko ekintza xumeetan dago, norberaren onarpenean eta emozio zein pentsamenduen jabetze eta kontrolatzean. Ondorioz, onar gaitzeen gure osotasunean, har dezagun arnasa sakon, arreta ekintza xumeetara bideratu eta has gaitzeen gure barruko korapiloak askatzen, lasaitzeko momentua da!



AGENDA

OSTIRALA

MAIATZAK 13

ADUNA

PROIEKZIOA

19:00. Zinegoak. Bilboko Gaylesbi-trans 19. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiaren proiektzioa, kultur aretoan.

ALKIZA

SAN ISIDRO

17:30. Dultzaina ikasleen kontzertua.
18:00. Trikitixa eta pandero ikasleen kontzertua.

17:30. *Luma eta tinta* erakusketa, salto gelan.

19:00. *Emakume kirolariak* mahai ingurua, Fagus Alkiza zentroan. Aitziber Ibarbia, Miriam Arrillaga eta Idoia Etxeberria. Unai Ugarte-mendia moderatzailearekin.

AMASA-VILLABONA

BERTSO IKUSKIZUNA

19:30. *ERRE. Aldarri bat bertsoz* bertso eta antzerkia. Sarreraren prezioa 6 euro. Gurea antzokian.

MAHAI INGURUA

19:00. Aiztondoko Gazte Koordinadora Sozialista Tolosaldeko Langile Autodefentsa Sarearekin elkarlanean antolatutako mahai-ingurua. *Irizar e-mobility borroka*, Berdura plazan.

ELKARTASUN JAIALDIA

22:00. Elkartasun jaialdia, Aljibean. Sarrera 2 euro. Lortutako etekin ekonomikoa Errakiren erresistentzia kutxara bideratuko da. Dogeg.
Ondoren. DJak.

ANOETA

IKASTAROA

17:30. Ahalduntze ikastaroak emakumeentzat. *Mindfulness*. Gela balioanitzean.

HITZALDIA

19:00. *Bubisher proiektua eta Saha-*



rako kabiak hitzaldia. Tolosaldea Sahararekin elkartaren eskutik. Errefuxiatu kanpamenduetan liburutegiak bultzatzeko proiektua. Euskaraz. Maite Ramosek eskainiko du hitzaldia, Kabiak proiektuko kideak. Udaletxean.

ELKARTASUN JAIALDIA

22:30. Elkartasun jaialdia, Anoetako gaztetxean. Sarrera: 3 euro. Uzi Cuzy eta Mxk3r eta lagunak. Lortutako etekin ekonomikoa Errakiren erresistentzia kutxara bideratuko da.

IBARRA

KMK

18:00. Munduko gastronomia Ibarren. Aljeria, Sahara, Honduras, Maroko, Nikaragua, Nigeria, Ekuador, Kuba, Portugal eta Euskal Herria. Plazako aterpean.

TOLOSA

III. TOLOSA ZURIA LORETAN

16:00-00:00. Ate irekiak, Topic-en. Helduentzako doako bisita gidatuak, euskaraz, 20:00etan, eta gaztelaniaz, 21:00etan. Aurrez eman behar da izena; gehienez, hamabost lagun taldeko.

23:00. Koktel zuriaren dastaketa, Bide-bide jatetxearen eskutik.

AMAROKO KULTUR ASTEA

19:00. Batukada.

20:00. Hiden Garden taldearen kontzertua.

22:30. Andoni DJ.

KONTZERTUAK

20:30. Duke Ellingtonen abestiekin kontzertu sakroa, Musikene Big Banden eskutik, Leidorren.

22:00. Gyoza eta Kuartz taldeen kontzertuak, Bonberenean.

BAKARRIZKETA

22:30. Txikiren bakarrizketa umoretsua. Sarrera dohainik. Frontonen.

LARUNBATA

MAIATZAK 14

ALKIZA

SAN ISIDRO

10:00. Danena Txirrindulari elkartaren eskutik, bizikleta-ginkana 6-10 urte bitarteko haurrentzat. Plazan.

10:00. Bizikleta irteera 10 urtetik aurrerakoentzat, plazatik abiatuta.

17:00. Frontenis txapelketa, frontoian.

23:00. Distopia elektrotxaranga, plazan.

AMASA-VILLABONA/ADUNA

MENDI IRTEERA

Belkoainera mendi irteera, Ttonttorrez Ttonttor.

08:45. Ibilbide luzea. Villabonako Olaederra kiroldegitik.

09:15. Ibilbide motza. Adunako plazatik.

ANOETA

IKASTAROA

09:00-13:30 eta 15:30-19:00.

Orientazio ikastaroa mobileko GPSarekin (Android sistema). 10 euro.

BILERA IREKIA

10:30. Lurtaro elkartearen bilera irekia. Hiru urteko ibilbidearen ostean, Lurtaro kooperatiba eratzea izango da hurrengo urratsa. Proiektuak eskualdeko dimentsioa izango du, eta ahalik eta parte hartzaileena eta demokratikoa izan dadin, bilera irekia deitu dute. Mikelasagastin.

BERASTEGI

LARRE IREKIERA

10:00. Larre irekiera.

Ondoren. Bertaratukoentzat hamaiketako Gorosmendin.

IRURA

IKASTOLAREN EGUNA

Irurako Ikastolaren eguna ospatuko da. Besteak beste, goizean mendi ibilaldia izango da, ondoren ikastolako gurasoek prestatutako paella bazkaltzeko aukera egongo da eta arratsaldean jolasak antolatuko dira. Mariskadaren zozketa izango da.

TOLOSA

AMAROKO KULTUR ASTEA

Goizez. Herri kirolak.

Arratsaldez. Haurrentzako eta nerabeentzako altxorren bika.

18:00. Txokolatada.

III. TOLOSA ZURIA LORETAN


09:00. Lore eta Landare Azoka, Trianguloa plazan.

10:00-14:00. Ate irekiak, Topic-en. Familientzako doako bisita gidatuak, euskaraz, 11:30ean, eta gaztelaniaz, 12:30ean. Aurrez eman behar da izena; gehienez, hogeitaun taldeko.

10:30. San Isidro eguna dela-eta, baserritar eta ekoizleei omenaldia.

11:30. Musikeneko ikaslez osatutako Ashyma Quartet taldearen kontzertua, Topic-en. Sarrera: 5 euro.

17:00. Fotopic lehiaketako argazki erakusketaren inaugurazioa eta sari banaketa, Topic-en.



17:30. Familia-tailerra Topic-en: txotxongilo bat eraikitzeko aukera.

18:30. Babel Teatro konpainiaren *Beethoven* ikuskizuna, Topic-en.

UZTURRE ARGIZTATU

20:00. Uzturre argiztatu Gure Eskuk deituta, Izaskun baselizatik.

KONTZERTUA

22:00. The Grace of Dionysus eta Marlik taldeen kontzertua. Bonberenean.

ZIZURKIL

BERTSO ETA DANTZA IKUSKIZUNA

22:00. AMaRaun. Irunez iraun. Oihana Iguaran eta Amañur Luluaga. Sarrerak udal bulegoetan eskuratu daitezke, 3 euro ordainduta. Joxe Arregi plazan.



IGANDEA

MAIATZAK 15

ALKIZA

SAN ISIDRO EGUNA

14:00. Baserritarren bazkaria, Alkizako herri ostatuan.

17:00. Frontenis txapelketa, frontoian.

ALTZO

SAN ISIDRO EGUNA

13:30. Meza, Altzo Muñoko Santa Maria Elizan.

14:15. Bazkaria, Altzoko Ostatuan.

AMASA-VILLABONA

BILERA IREKIA

12:00. Amasa-Villabonako udaleku

parte hartzaileak. Maiatza eta ekainean zehar lau bilera egingo dira udalekuak diseinatu eta antolatzeko. Errebote plazan.

SAN ISIDRO EGUNA

10:00. Meza nagusia.

12:30. Herri kirolak bertsolari eta trikitilariak alaiturik.

14:00. Bazkaria Iturri Goxo jatetxean.

21:00. Afaría Uxo Toki elkartean.

ANOETA

DANTZARI TXIKI EGUNA

Dantzari Txiki Eguna. Goizean, 10:30-13:30 artean, herrian zehar eta 18:00-19:00 artean, plazan.

ASTEASU

SAN ISIDRO EGUNA

Eguerdian, Triki-bertsokalejira herriko trikitilariekin eta Jesus Mari Irazu eta Amaia Agirre bertsolariekin. Bazkaria Iturriondoren eta ondoren, trikitilari eta bertsolarien saioa.

BERASTEGI

SAN ISIDRO EGUNA

11:45. Prozesioa udaletxetik San Martin elizara, txistulariek lagunduta.

12:00. Meza, herriko haur dantzari eta bertsolarien lagunduta.

13:00. Herriko haur pilotarien partidak karreapean.

14:00. Bazkaria udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

Ondoren. Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

BERROBI

UDABERRIKO KULTURALDIA

San Isidro Eguna. Meza eta ondoren herriko baserriarrentzako hamaiketako, Iriarten.

BIDANIA-GOITAZ

KONTZERTUA

18:30. Demode Quartet kontzertuan, Goiatzen.

TOLOSA

MENDI IRTEERA

07:30. Apodaka-Ganalto-Kuartango-Zuhatsu mendi irteera.

Bi ibilbide izango dira: luzea eta motza. San Frantziskotik.

AMAROKO KULTUR ASTEA

13:00. Auzo bazkaria.

Auzoetxean. Bakoitzak bere bazkaria etxetik eramango du. Edaria eta kafea auzo elkarteak jarriko du. Auzoko dendetan izena eman.

DEATH CAFE

18:00. Bihotzetik elkarteak, doluari buruzko kanpainaren barruan, gazteentzako lehen topaketa antolatu du. Kultur etxean.

MUSIKA ZUZENEAN

18:00. Iñigo Perurena musika zuzenean eskaintzen, 3 tabernan.

ZIZURKIL

SAN ISIDRO EGUNA

Bazkaria, bertsolariak eta Jon Erasunen omenezko pilota partidak. Ziotza pilota eskolako umeen partidak. Emakumeak paletaz: Irazustabarrena-Arrillaga eta Galdos-Erasun. Gizonak eskuz: J.Alberdi-Iraziustabarrena eta Perurena-Erasun.

ASTELEHENA

MAIATZAK 16

TOLOSA

ODOL EMATEA

16:30-20:30. Odol ematea, Gipuzkoako Odol Emailek elkarteak deituta. Egunean bertan goizean deitu behar da hitzordua eskatzeko: 943 007885. Kultur etxean.

ZIZURKIL

MAIATZA SALTSAN

18:30. *Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabe hitzaldia.* Plazida Otañoko gela balioanitzean.

ZINEMA



**GO FISH:
SALVEMOS EL
MAR**

Larunbata eta igandea (17:00).
Amasa-Villabona, Gurea.



**ARDE NOTRE
DAME**

Larunbata eta astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.



ALCARRAS

Larunbata (19:30 eta 22:00);
igandea (19:30) eta astelehena (20:30).
Amasa-Villabona, Gurea.




**LA CIUDAD
PERDIDA**

Larunbata (21:30) eta igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.



**LAS AVENTURAS
DE PIL**

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



Irudi engainagarriak

1etik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?


Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.






Zein da zein? Hegazti guztiei 'txori' esatea ez da oso zehatza, ezta? Lotu txori bakoitzari dagokion izena.



Hizki-Marrazki

Jarri marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta zer dioten jakingo duzu.



Handitik txikira

Ordena itzazu txitak handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 6.

Denbora-pasen erantzunak hemen.



«SUA DAGOENEAN KEA NONBAITETIK AZALERATU EGITEN DA»

ANE ARRUTI
MUSIKARIA

Keia taldeak maiatzaren 20an eskainiko du kontzertua Bonberenean, eta ekainaren 17an Oresako Ostatuan izango da, bietan, 22:00etan.

Irati Saizar Artola

Barruko su txikiei darien kea kantuz bildu du Keia taldeak, *Erregaia* izeneko lehen diskoan. Ane Arruti zarratarrak eta Iker Martinez de Zuazo, Egoitz Olalde eta Iñigo Ibarrondo oñatiarrek osatu berri dute taldea. Arrutik idatzita zituen letrak doinuaz jantzi dituzte eta doinu horiek zabaltzera datoz Tolosaldera datozen asteetan.

Bakarkako proiektu batetik etorri da Keia. Arrutiko Intxaurrekin izenarekin bakarlarit moduan ibili zinen aurretik.

Aspaldi xamar bakarlarit bezala ibili nintzen nire kantutak jotzen eta nahiko utzita neukan. Inoiz ez nuen esan utzi egin nuenik, baina abandonatzen joan nintzen. Banituen ordea kanta batzuk pilatuta eta gogoan nuen zerbait egiteko; hortik sortu zen taldea, kantu horiek moldatzeko gogo horretatik.

Abesti horietan taldean eman nahi zenien zentzua?

Talde lana izan da, nik oinarria jarri dut eta gero lauror artean joan gara kantutak sortzen eta beste forma bat ematen.

Eta musikariak bilatu behar izan dituzu.

Laguntza bila hasi nintzen, bakarrik egitea zaila delako, eta Iker Martinez de Zuazori komentatu nion. Bera laguntzeko prest agertu zen gitarra batekin, eta be-

rak ezagunak zituen Egoitz Olalde eta Iñigo Ibarrondo, hirurak oñatiarrak dira eta horrelaxe hasi ginen. Nik kantutak pasatzen nizkien beraiei eta beraiek proposamenak egiten zituzten, eta azkenik lokalean ematen genien amaierako forma.

Hirurak oñatiarrak eta hirurak esperientzia handiko musikariak.

Talde ezagun batzuetatik pasatakoak dira, bai. Esperientzia horrek asko laguntzen du. Martinez de Zuazo, esaterako, Latzen eta Potemkin taldeetan ibilia da eta bakarkako ibilbidean ere badabil; beste biak Sharon Stoner, Zingira eta beste hainbatetan ibili dira. Bizitza osoa daramate musikaren munduan eta nabaritu egiten da.

Musikariekin letrei melodia jartzen hasi eta talde izaera hartu zenuten?

Hasieran asmoa txikia zen: kantutak osatzea eta lokalean grabatzea. Baina laurok batera entseguak egiten hasi ginenean gustura geundela ikusi genuen, konturatu ginen kantuek bazutela indarra zuzenekoetarako eta gehiago amesten hasi ginen. Estudio batera joan gintezkeela eta disko bat grabatu genezakeela pentsatu genuen. Horrelaxe izan da prozesua, batere planifikatu gabea.



Eta zein musika egiten duzue?

Zaila egiten zaigu etiketa bakar bat jartzea. Letrak pasatzen nizkien neurrian, banaka joan ginen kantutak osatzen, aurretik irizpiderik jarri gabe. Bakoitzak etortzen zitzaion ekarpena egiten zion abestiari, eta kantutak batzuk joera bat hartu dute eta beste batzuek beste joera bat. Baina guztiak daude rock aterki baten azpian, batzuk gogorragoak izango dira eta beste batzuk poperoagoak. Rock etiketaren azpian eroso gaude. Hiru musikari hauen ibilbidea kontuan hartuta ere nahiko jakina zen bide hori hartuko zuela taldeak.

Elkarlaneko proiektu bat da, beraz.

Musikariek akaso ezetz esango dute, baina hala da. Ikusita zein esperientzia zuten musikariek, esan nien ez niela irizpiderik emango. Zein naiz ni irizpideak markatzeko? Askoz aberatsagoa izan zitekeen letrek iradokitzen zieten egitea. Elkarlanean joan gara sortzen. Kontua da sortzen hasi ginenean, iaz, itxiera perimetrala bezalako neurriak genituela, eta etxetik ari ginen sortzen. Gero entsegu lokalean denon artean amaitu ahal izan ditugu abestiak.

Pandemia garaian sortzen hasi eta pandemia osteko talde bat zarete.

Iazko apirilean ezagutu genuen elkar eta behin mar-txa hartuta nahiko azkar egin ditugu gauzak.

Taldearen sorrerarekin batera diskoa ere etorri da.

Hamar kantutak osatuta dago. Nafarroako Bera herriko Atala estudioan grabatu dugu, Iñigo Irazokirekin. Sekulako esperientzia izan da, lauok batera jotzen grabatu dugu, modu analogikoan. Oso gustura geratu gara emaitzarekin.

Modu analogikoan grabatu duzue. Zein da modu hori?

Zintan grabatzen da, lehen egiten zen moduan. Soinu berezia izateaz gain, guri suposatutako diguna da gauzak gehiago prestatuta eraman behar izan ditugula estudiora; izan ere, zintak bere mugak ditu. Esaterako, zati bat grabatzen baduzu eta ez bazaizu gustatzen, ezin da badaez-

«Disko honekin barruko su txikiei erregaia bota diegu eta berriro bizitu ditugu»



pada jasotzeko beste bat egin, aurrekoa borratu behar delako. Politak izan da modu hori ezagutzea ere.

Keia du izena taldeak eta Erregaia jarri diozue izena diskoari. Suarekin jolastea gustuko duzue?

Lehenengo talde izena pentsatu genuen eta gero etorri zen diskoarena, hitz joko horretatik. Barruan ditugun su txiki horiei egiten diegu erreferentzia, denok ditugu barruan su batzuk askotan identifikatu

gabeak edo kasurik egin nahi ez diegunak, eta sua hor dagoenean kea nonbaitetik azaleratu egiten da. Disko honekin su txiki horiei erregaia bota diegu eta berriro bizitu ditugu.

Ilunetik du diskoak?

Jendeak esan digu baduela ilune-



KONTZERTUAK

MAIATZAK 20, TOLOSA
Bonberenea. 22:00etan, 8 euroen truke. Ramada Inn taldeak ere kontzertua eskainiko du.

EKAINAK 17, OREXA
Orexako Ostatua. 22:00etan, doan, ostatuko ganbaran, Ostiral Kulturalak egitasmoaren barruan.

tik, uste baino ilunagoa dela, niri hain iluna iruditzen ez arren. Jendeak esaten badu, zerbait izango du. Letrak ere ez dira oso positiboak egia esan, baina beti esaten dut idatzi nituenean ez nengoela hain triste. Askotan errazagoa zait tristuraz hitz egitea maitasunaz edo gauza alaiagoez baino. Bakoitzaren kontraesanak, ezinegonak bildu ditugu.

Eta martxan zabiltzate, kontzertuekin. Zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Oso gustura gabilta. Nahiz eta esperientzia izan taldekideok, talde berria da, hasiberria, eta badakigu ez

dela erraza kontzertuak eskaintzea, baina batzuk eman ditugu, beste batzuk ere badauzkagu agendan eta pozik gaude. Gainera, bakarrik ibiltzera ohituta nengoen eta taldean zoazenean beste bizipen batzuk dituzu, konpartitu egiten dituzu eta polita da.

Biak probatu dituzu, bakarrik ibiltzea eta taldean aritzea. Zein aukeratuko zenuke?

Dudarik gabe taldea aukeratuko nuke. Egia da bere desabantailak badituela, batez ere, koordinazio kontuak direnak, baina, bestela, guztia da abantaila.

Zein feedback jaso duzue lehen kontzertu horien ostean?

Jendea gustatu zaio eta horrela jarraitu nahiko genuke. Feedback ona jaso dugu. Nolabait esateko, gure musika ez da jai girokoa, ez daukazu parean jendea dantzatzeko, baina, hala ere, inpresio ona izan dugu.

Jendea kultur gosez ere egongo da. Nabaritu duzue?

Ez dakit, nire zalantzak ditut. Neurri murriztaileak amaitu zirenean, jendeak bazuen kalerako gogoia, baina ez dakit ez ote garen etxean egotera ohitu eta etxetik ateratzea ez ote den kostatzen. Baina ez da soilik kontzertuen inguruan, orokorrean esaten dut. Sentsazio hori dut momentu honetan.

Tolosaldera etorriko zarete, bi bider, datozen asteetan.

Kasualitatez, bi kontzertu atzeratu behar izan ditugu, eta Tolosakoa eta Orexakoa izan dira. Bonberenean urtarrean jo behar genuen eta positibo bat tarteko, atzeratu egin behar izan genuen. Orexarako ere, apirilera geneukan lotuta, eta beste taldekide bat gaitzatu zitzaigun. Hemendik ere eskertu nahiko nieke beste data bat lotzeko eman diguten erraztasuna, badakigulako zenbat lan egiten den guztia koordinatzen eta antolatzen. Gainera, azken momentuko kontuak izaten dira, eta faena izaten da.

Bigarren aukera hori eman zaizue, gogo gehiagorekin zatotze?

Zorretan bezala sentitzen gara, beraz, gogoarekin joango gara bai. Jendea gonbidapena luzatu nahi diogu kontzertuetara etortzeko, eta gure partetik behar bezala erantzuten saiatuko gara.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGURALDIA

OSTIRALA.

Antzeko giroa. Goizean goi-mailako hodei batzuk eta hodei baxuren bat edo beste salbu, eguraldi polita izango da. Arratsaldean zehar bero-hodeiak garatzen joango dira eta ez da baztertzen egunaren amaieran ekaitz isolaturen bat lehertzea. Hala ere, aukera oso txikia da eta gehienez ateri eutsiko dio. Hego-ekialdeko hai-zea ibiliko da eta tenperaturak koska bat gora egingo du, 26-27 gradutan joko duelarik goia.

LARUNBATA

Uda beteko eguraldia. Goizean erdi eta goi-mailako hodeien presentzia nahiko handia izango da eta tarteka zeruari kolore zurixka emango diote. Hala ere, giro lasaia izango da. Arratsaldean zehar bero-hodeiak garatzen joango dira eta arratsalde erditik aurrera ekaitzetarako joera hartuko du, non tarteka ekaitzen bat edo beste izango den. Hego-haizea ibiliko da eta tenperatura igo egingo da, 28-30 gradutan joaz goia.

IGANDEA

Giro eguzkitsua. Goizean hodei baxuren bat salbu, eguraldi eguzkitsua izango da. Arratsaldean zehar bero-hodeiak garatuko dira eta mendebaldetik erdi eta goi-mailako hodeiak ere ugarituko dira, baina ekaitzetarako joera txikia izango denez, orokorrean ateri eutsiko dio eta eguraldi lasaia izango da. Hego-haizea ibiliko da eta tenperatura igo egingo da, bero handia egingo duelarik. Maximoak 31-32 gradutan errendituko dira.

ZORION AGURRAK



**ZORIONAK
MANEX!!!**

**HIRE HUTSUNEA
NABARITU GINDIAN**

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20 · Tolosa

FARMAZIAK

MAIATZAK 13, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Lourdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6.
943 67 51 18.

MAIATZAK 14, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Oskar Etxebeste Etxarri.
Gernikako Arbolaren lorategiak, 3.
943 65 10 40.

MAIATZAK 15, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Maria Jose Santamaria.
Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

MAIATZAK 16, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo, 20. 943 67 60 13.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.



LOATZO
MUSIKAESKOLA

Aduna Alegia Altzo
Anoeta Ibarra Irura
Villabona Zizurkil

MUSIKARI BILA

MATRIKULAZIOA
Maiatzaren 16tik 22ra

- * Musikaz gozatzeko
- * Ongi pasatzeko
- * Kantatzeko
- * Musika tresna bat jotzeko
- * Talde bat osatzeko

www.loatzo.eus



sariduna



Atarikideentzat **liburu bat** dugu

Nerea Loiolaren
Azken Lanhutarra

• Goretti Bengoetxea (Ibarra)

Saria jasotzeko Atariako bulegotik pasa

atariaKO ARKUA ZURE HERRIKO JAI EDO KIROL EKITALDIETAN

**ERABILI NAHI
BADUZU
ESKATU DOAN:**

ataria@ataria.eus

943 65 56 95



R.ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Ataria
www.ataria.eus • 107.6 fm

Atariako irakurleentzat Zabala Sagardotegiarekin
elkarlanean, zozketa abian jarri du Atariak.

Egin txotx **atariarekin!**



Saria:
Sagardotegi menua bi pertsonarentzat eta sagardo kaxa

Parte
hartzeko epea:
Maiatzaren 6tik 15era.

Zozketako oinarriak eta
informazio guztia
Ataria.eus-en



**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**
—%100 GURE—
BASERRITARREKIN



EUSKO LABEL PRODUKTUETAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

TOLOSA:

ITURRALDE HARATEGIA - Oria, 8

J.L. MUÑAGORRI HARATEGIA - Gorosabel, 5

VILLABONA:

MUSTURINEA HARATEGIA - Calle Mayor Kalea, 14

ZIZURKIL:

JOXEAN HARATEGIA - Bulandegi Bidea, 1

hazi

Euskadi, mugatzen
EUSKO JAURLANITZA
GOBIERNO VASCO